

OSOGUNEKO ERAKASRERA

1998-99ko IKHASURTHEA

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

- 1- Zerrek hartu zuen Doniari ostalera.
- 2- Lohilakat kilikazena? Nolako makila zuen?
- 3- Aipa zazu dakizuna, Izurako Daunategi.

LOHILAKAT 2

Aldi batez, Doniari ostal bat arnoketa⁸ ethorritik Lohilakateko sotora, gure Sansonek, hiru ehun pintoako barrika hartu zuen bere bi besoetan, bizkarrera berak altxatu, bizkarraren ereman athe aintzina, eta, brau, orgetan ezarri. Harritua, sorbaldak biribil itzuli omen zen Doniari ostalera, berrogoi sos gehiago emanik bere arnoarentzat. Ondoko egunetan, ikharre daldaretan oraino, Lohilakateko arnoaren edalerri ba omen zuen zer konda gure gizonttoak!

Gizon prestua osoki izana gatik, frango kilika⁹ zen bizkarraren, eta, kitzikatu gabe, bere ulixekin utzi beharra. Ez dakit Killo Larresorokoaren aitak eгина othe zion, bainan, bazuen eskualdun makila bat, burdin-haga alimale bat erranen baitzintzen zinez eta egiazki. Makila haren xixtua, Lohilakatean eskuetan! Zuek eta nik, zumea sekulan ez dugu hala erabili, nola Sansonek bere arbola ondo! Sansonek bezala, lephoko zainetan, lephioko ileetan zuela bere indar guzia! Bai eta esku-muthurretan eta besoetan ere, alafede! Zorigaitz, tokien husteren ez aski goiz ernaturik, makila-palangaren menean egon zireneri! Orduan, Izurako Daunategi¹⁰ bazuen lan, zombait egunez, Lohilakaten makilak hautsi hexurren xuxentzen!...

Hala, hala, noizbait azkenean, makila horrek galdu beharra zen gure gizona!

Beraz, iragan mendearen erditsutan, mila zortzi, ehun eta berrogoi ta zortziko Erreboluzio-egunetan soldado joan nahi zirelako, Eskualdun gazte andana bat preso altxatu zituzten, eta, merkatu egun batez, Doniari, Mesaarriaineko plazari gora bazeramaten hetarik multzo bat, gaztelurat buruz. Jendeketa handia bazen han, jandarma eta soldadoeri beha, kirrikan, beren odoleko gazteak mañotaturik ikusteak oro suminduak.

III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Egina othe zion 32. Egon zireneri.
33. Joan nahi ez 34. Bazeramaten.

31. UKAN. Conjugaison à dble cplt. Indicatif

Imparfait C.D.S. et C.I.S.

Hari = a lui

- Nik nion = nikon = je le lui avais
 Zuk zinion = zinikon = vs le lui aviez
 Harek zion = zikon = il le lui avait
 Guk ginion = ginikon = ns le lui avions
 Zuek zinioten = ziniakoten = vs le lui aviez
 Heiek zioten = ziakoten = ils le lui avaient

CDS Guri = à nous CIP.

- Zuk zinakun = vous nous l'aviez
 Harek zaukun = il nous l'avait
 Zuek zinakuten = vous nous l'aviez
 Heiek zaukuten = ils nous l'avaient

C.P. Emaiten zinakun = vous nous le donniez

32. EGON. Conj. faible. Indic. Présent

La conjugaison faible peut remplacer la forte quand le verbe EGON signifie demeurer rester. etxean dago = etxean egoiten da = il reste à la maison

- Ni nago = egoiten naiz = je reste
 Hi hago = egoiten haiz = tu restes
 Zu zande = -" zira = vs restez
 Hura dago = -" da = il reste
 Gu gande = -" gira = ns restons
 Zuek zandezte = -" zirezte = vs restez
 Heiek dante = -" dira = ils restent.

33. JOAN. Conj. faible indic. Présent.

La conjugaison faible peut remplacer la forte quand joan signifie aller au sens propre.

- Ni noa = joaiten naiz = je vais
 Hi hoo = joaiten haiz (haiz) = tu vas
 Zu zoatzi = -" zira = vous allez
 Hura doa = -" da = il va
 Gu goatzi = -" gira = nous allons
 Zuek zoazte = -" zirezte = vous allez
 Heiek doatzi = -" dira = ils vont.